

ESKOLA PROGRAMA

EUSKARAREN
ETXEA
BILBAO

ARKEOLOGI
MUSEOA
BILBAO

REKALDE
ARETOA
BILBAO

ONDARE
ARETOA
BILBAO

ARRANTZALEEN
MUSEOA
BERMEO

SANTIMAMIÑE
KORTEZUBI

EUROPAKO
HERRIEN
PARKEA
GERNIKA-LUMO

TXAKOLIN MUSEOA
-TXAKOLINGUNEA
BAKIO

LA ENCARTADA
FABRIKA-MUSEOA
BALMASEDA

MUÑATONES
GAZTELUA
MUSKIZ

EL POBALEKO
BURDINOLA
MUSKIZ

EUSKAL
HERRIA
MUSEOA
GERNIKA-LUMO



ARKEOLOGI MUSEOA

94 404 09 90
Mallona Galtzada 2, 48006
BILBAO
arkeologimuseoa@bizkaia.eus



LA ENCARTADA FABRIKA-MUSEOA

94 680 07 78
El Peñueco Auzoa 11, 48800
BALMASEDA
LaEncartada@bizkaia.eus



SANTIMAMIÑE

94 465 16 57
Basondo Auzoa, 48315
KORTEZUBI
santimamine@bizkaia.eus



EL POBALEKO BURDINOLA

629 271 516
El Pobal Auzoa z/g, 48550
MUSKIZ
elpobal@bizkaia.eus



ARRANTZALEEN MUSEOA

94 688 11 71
Ertzilla Dorrea. Torronteroko
Enparantza, 48370
BERMEO
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus



MUÑATONES GAZTELUA

629 271 516
San Martin Auzoa, 48550
MUSKIZ
elpobal@bizkaia.eus



EUSKAL HERRIA MUSEOA

94 625 54 51
Allendesalazar 5, 48300
GERNIKA-LUMO
euskalherriamuseoa@bizkaia.eus



ONDARE ARETOA

94 406 77 37
Maria Diaz de Haro 11, 48013
BILBAO
ondare.arettoa@bizkaia.eus



EUROPAKO HERRIEN PARKEA

94 625 54 51
Allendesalazar 5, 48300
GERNIKA-LUMO
euskalherriamuseoa@bizkaia.eus



REKALDE ARETOA

94 406 85 32
Rekalde Zumarkalea 30, 48009
BILBAO
salarekalde@bizkaia.eus



EUSKARAREN ETXEA

94 402 80 81
Agoitz Plaza 1, 48015
BILBAO
info@euskararenetxea.eus



ARKEOLOGI MUSEOA

HAUR HEZKUNTZA

Jarduerak.

3 eta 5 urte bitarteko pertsonentzako jarduerak, museoa beren lekua dela sentiarazteko helburuarekin.

LEHEN HEZKUNTZA

Bisita dinamizatua + tailerra.

Bisita dinamizatua Museoko erakusketa-areto batera, irakasleek aukeratutakoa. Bertan, parte-hartzaileek aztarnategi arkeologiko baten indusketa irudikatuko dute. Gainera, irakasleei bisita prestatzeko eta edukiak finkatzeko dossier bana ematen zaie.

BIGARREN HEZKUNTZA


Paisaiak aldatzen tailerra.

Paisaiak aldatzen deituriko tailerraren bidez, gure ingurune sozialaren alderdiak aztertzeko metodoak eta teknikak erakutsi nahi dira, Museoa ikusgai dauden paisaia eta material arkeologikoak behatuz. Halaber, bisita gidatuak egin ahal izango dituzte museoa bakarka edo lagun-talde txiki batekin ikusteko.



SANTIMAMIÑE

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zikloetara egokitutako programa eskaintzen da, hala nola bisitak kobaren erreplika birtualera eta kobako atarira. Gainera, unitate didaktikoak eskaintzen dira Santimamiñen bertan nahiz ikasgelan egiteko.



ARRANTZALEEN MUSEOA

Museoak hainbat bisitaldi tematiko eskaintzen du, hezkuntza-mailetara egokituak.

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA BIGARREN HEZKUNTZA

Arrantzaleen mundua.

Arrantzaleen eta beren familien bizimodua eta ohiturak azaltzen dira.

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA BIGARREN HEZKUNTZA

Arrainak eta balea.

Gure zonako espezie ohikoek zein diren ikasten da eta balea harrapatzeko antzinako teknika ezagutzen da.

LEHEN HEZKUNTZA ETA BIGARREN HEZKUNTZA



Euskal Herriko arrantza-moduak.

Historian zehar arrainak harrapatu eta merkaturatzeko erabili diren teknikak ezagutzeko.

BIGARREN HEZKUNTZA

Euzko Itsas Gudarostea.

Garaiko Euzko Jaurlaritzak Gerra Zibilean sortu zuen itsas armada, zeinean euskal arrantzaleak muin nagusia izan ziren.



EUSKAL HERRIA MUSEOA

BASOAK HISTORIAN TAILERRA (4 – 12 urte)

Agenda 2030ekin lotutako jarduera honen helburua ikasleek basoek eta zuhaitzek Euskal Herriko Historian izan duten garrantzia ulertzea da. Horretarako erakusketan dauden baliabideak erabiliko dira, museoa bisitatu eta adinaren arabera jarduera praktikoa eginez.

EUSKAL KULTURA JOKOA (8-12 urte)

Umeek euskal kultura eta folklorea modu partehartzailean landuko dute. Alde batetik, museoko bigarren solairua bisitatzeko da hainbat tresna eta material hurbiletik ezagutzeko. Bestetik, froga eta galderez osatutako jolasa egiten da.

ALTXORRAK ETA KARTOGRAFIA TAILERRA (10-16 urte)

Ikasleek kartografiaren bilakaera eta historian zehar izandako garrantzia ezagutzeko dute, baita antzinako mapak interpretatzeko ere. Kartografia bilduma bisitatu, esperimentu bat egin eta "Altxorren bila" jolasarekin praktikan jarriko dute ikasitakoa.

FORUAK ETA BATZARRAK (10 – 14 urte)

Helburua Foruek eta Batzarrek Euskal Herrian, bereziki Bizkaian, izan duten garrantzia ezagutzeko da. Gernikako Batzar Etxea bisitatu ondoren, museoan foruak eta batzarrak Euskal Herriko lurraldeetan zergatik sortu ziren azalduko da. Bukatzeko, partaideek Bizkaiko elizate bateko batzarra eta Bizkaiko Batzar Nagusia antzeztuko dute.





EUROPAKO HERRIEN PARKEA

LORATEGIKO ESPEZIE BOTANIKOEI BURUZKO MATERIAL DIDAKTIKOA

Hezkuntza zentroek edo aisialdi taldeek beraien kabuz parkea bisitatzeko aukera daukate. Bisita prestatzeko, lorategiko hainbat zuhaitzei buruzko informazio dago eskuragarri lau hizkuntzatan.

Gainera Parkean zehar zuhaitz batzuek identifikazio plakak dituzte informazioa QR bidez eskuragarri dagoelarik



EUSKARAREN ETXEA

EUSKARAREN INTERPRETAZIO ZENTROKO ESKOLA-PROGRAMA

Euskararen Interpretazio Zentrora bisitan datozen ikastetxeei ordubeteko bisitaz gain, lantegi batean parte hartzeko aukera ere eskaintzen diegu. Gazteekin lanean eskarmentu handia daukan lantaldeak gidatzen du eskola programa eta eduki guztiak egokitzen ditugu adin bakoitzaren behar eta interesetara. Euskararen erabilera eta sustapenarekin lotutako lantegi batean parte hartzeko aukera ere izango dute.



LA ENCARTADA FABRIKA-MUSEOA

HAUR HEZKUNTZA

SORTU ZURE ARDIA

Artilea (ardi-ilea) zer den eta nola erabiltzen den ikasiko dute ikasleek. Nork bere arditxoa egin eta, ondoren, etxera eramango du.

ARTILEAREKIN JOLASTEN

Koloretako artileaz collage dibertigarria egingo dute eta, ondoren, etxera eramango dute.

LEHEN HEZKUNTZA

TXIKI-EHUNGAILUAK

Fabrikan ehungailu handiak ikusiko badituzte ere, jarduera horren eskutik, eskuzko ehungailuekin ehuntzen ikasiko dute eta ehun bat egingo dute. Ondoren, etxera eramango dute.

JOKATU ETA OSATU ESALDIA

Lauzpabost laguneko taldetan antolatuta, igarkizun bat igartzen jokatu dute ikasleek, bisitaldi gidatuan ikasitako guztia lagungarri izanda. Taldean lan egiteko jarduera dinamikoa da.

ARDI AZKARRAK

XL taula bateko fitxak izango dira ikasleak: fabrikarekin zerikusia duten galdera batzuei erantzungo diete eta oztipoak gaindituko dituzte, erronka burutzeko. Trebetasun eta lankidetzako jarduera.



HAUR HEZKUNTZA + LEHEN HEZKUNTZA

ELKARLANEKO GINKANA

Ziklo bakoitzera egokitua. Talde txikitan antolatuta, probak elkarlanean gaindituko dituzte, Museo barruan eta hortik kanpo sakabanatutako erronka guztiak gainditu arte. Aukerako jarduera da ikasturte amaierako ibilaldietan egiteko.

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOA + DBH

BERDINAK AL GARA?

Fabrika bisitatzen den bitartean, bi emakume langilek (1900. urtean eta 2000. urtean jaio zirenak) lan-arloan izan dituzten bizi-esperientziak kontatuko dituzte. Ondoren, ikasleek, taldeka antolatuta, emakumeak gizartean duen eginkizunaren bilakaeraz eztabaidatuko dute.

DBH + BATXILERGOA

INDUSTRIA IRAULTZA: LA ENCARTADA ADIBIDE GISA

Bisitan zehar, La Encartadan ikusten dituzten Industria Iraultzaren oinarriko alderdiak (energia-iturriak, asmakizunak, produktibitatea handitzea, lan-baldintzak, kapitalismoa, ...) idatziko dituzte lan-koaderno batean ikasleek.

LA ENCARTADA eta EL POBAL BISITATZEA

El Pobaleko Burdinola ere bisitatuko da, eta bertan Antzinako Erregimeneko negozio baten eta Industria Iraultzako negozio baten arteko desberdintasunez jabetuko dira, hots, bien artean gertatutako eboluzioaz.



EL POBALEKO BURDINOLA

Museoaren edukien aberastasunari esker, bisitari era askotako ikuspegietatik ekin dakiok: historia, zientzia, teknologia, industria, ogibideak, ingurumena, jasangarritasuna edo energia oso presente daude El Pobaleko burdinola-errota multzoan eta, hortaz, lehen mailako baliabide didaktikoa da tokia.

Bisita gidatuaz baliatuta bisita atseginagoa eta sustagarriagoa izango da. Eskola-talde guztiek **erakustaldi labur** batez gozatuko dute: **burdina sutegian nola lantzen den** ikusiko dute zuzenean. Halaber, bisitaldi tematikoak ere eskaintzen dira, hala nola **Euskara Landuz**, edo bisitak gidari didaktikoen eskutik, hezkuntza-ziklo desberdinentzat.

TALOA EGITEKO TAILERRA


Artoaren Iraultzaren berri izan al duzue? Taloa egiteko tradizioa Amerikarekin ahaidetzen gaitu. Taloa era askotako bertsioetan dastatzeko aukera izango dute ikasleek.

OGIA EGITEKO TAILERRA

Behar-beharrezko elikagaia da ogia, eta gaur egun gourmet produktu bihurtu da. Enkarterriko ogi-opila egingo dute ikasleek, nork berea. Egur-labean erreko dira ogiak, ikasleek burdinola eta errota bisitatzen dituzten bitartean.

0 KM-KO PIZZA

Tailer horretan, beste kultura batzuetako sukaldaritzak eta bertoko zenbait produktu gozo uztertuko dira.



■ URA, BASOAK ETA ENERGIA

Ibilbidea presagainean hasi eta Burdinolan amaituko da, eta haren eskutik, ura energia-iturri gisa duen garrantziaz eta basoak lehengaiak lortzeko duen zeregin erabakigarriaz jabetuko gara. Horretarako, kanabera-lursailetik igaro eta proba dibertigarriak gainditu ondoren, errotaren lurpeko kanalera barruratuko gara... eta estoldaren bihotzeraino iritsiko gara!

■ BUSHCRAFT EDO ANTZINAKO TEKNOLOGIEN TAILERRA

“Biziraun dutenen” taldeak ikaskuntza aktiboa egingo du aire zabalean babeslekuak, koltxoiak, sokak eta zurezko mazoak eraikitzeko, ingurune horretako baliabide naturalak erabiliz: kanaberak, zuhaitz-adarrak eta baita sasiak ere. Kanpamenduko sukaldeak eta suzko labeak jarriko dira lurpean.

■ BIZITZA UR TANTA BATEAN

Ikasi nahi duzu nola erlazionatzen diren Barbadungo izaki bizidunak beren ingurunearekin? Esploratzaile taldea ibaira jaitsiko da uraren ezaugarriak aztertzeko eta bertako flora eta fauna ezagutzeko. Gero, mikroskopia eta lupa binokularrekin, ur tanta batek ezkututzen duen bizitza harrigarria ezagutuko dute!

■ BURDIN TAILERRA

Lau labez, hauspo tradizionalaz, ingude batez eta forjaketarako tresnez hornituta, sutegia ikasleek burdina modu tradizionalan lantzeko agertoki ezin hobea da. Errementariaren ohiko janzkeraz jantzita eskuz eragin beharko diete hauspoei labeko sua pizteko eta burdina ingudearen gainean forjatzeko, une oro gure errementariaren jarraibideei jarraituz.

■ BESTELAKO PROPOSAMENAK

- ▶ Ibilbidea oinez Barbadungo burdinola eta errotetatik.
- ▶ Baterako bisitaldia: Burdinola eta La Encartada fabrika-museoa. Teknologian zeharreko bidaia.
- ▶ Baterako bisitaldia: Burdinola eta Enkarterriko Museoa.



MUÑATONES GAZTELUA


■ Apiriletik azarora, Gaztelua zabalik dago ikasle-taldeentzat eta astialdiko udalekuetako umeentzat. Bisitaldiak hezkuntza-ziklo guztietara egokitzen dira. Txikientzat, bi tailer hauek:

■ GAZTELUTXIKI

Muñatones Gaztelua nola eraiki zen, zein atal dituen eta zein eginkizun zuen ezagutuko du ikasle-taldeak. Bi mende inguru behar izan zituzten gaztelua eraikitzeko! Erdi Aroan gazteluan bizi izan ziren pertsonak eta horien eguneroko bizimodua ezagutuko dituzte, gerra eta bake garaietan. Salazararren historia erakargarria bezain dibertigarria da. Gainera, babes-hobian arku-tiroko torneoa ikusiko dute, harresiko adarbera igo ondoren.

■ ERDI AROKO BELAR-BILTZAILEA

Muñatones Gazteluaren bisita gidatua zientziarekin eta lurraren magiarekin esperimintatzeko tailer entretenigarri batekin bateratu daiteke. Belarrak, esentzia-olioak, alkohola eta bestelako osagaiak nahasteko artea.



ONDARE ARETOA

Tailerrak eta bisitak ESKOLA-TALDEENTZAT

Ikastetxeek eskatuta.

Ondare Aretoko aldi baterako erakusketekin loturiko ibilbideak eta jarduerak. Programa horien eskutik, taldeek Ondare Aretoko langileen laguntzarekin diseinatu dezakete bisita, taldearen interesak eta beharrak kontuan hartuta.

Artista tailerra

Batxilergo artistikoko ikasleei zuzendutako jarduera. Artistekin elkartzeko proposamena, erakusketak egiteko eta sorkuntza-prozesuetan sakontzeko, ariketa plastiko laburrak eginez.





REKALDE ARETOA

Tailerrak eta bisitak ESKOLA-TALDEENTZAT

Ikastetxeek eskatuta.

Rekalde Aretoko aldi baterako erakusketekin loturiko ibilbideak eta jarduerak. Programa horien eskutik, taldeek Rekalde Aretoko langileen laguntzarekin diseinatu dezakete bisitaldia, taldearen interesak eta beharrak kontuan hartuta.





ASKO...eta gehiago